

iritzia

gaurko...

...elkarriketa

Irati Lotina

• GASTEIZKO GAZTE
ASANBLADAKO KIDEA •

«Gasteizen aurkitu ezin diren lantegiak eskaintzeko helburua dugu»

Gasteizko Gaztetxeak datozen hilabetetan antolatuko dituen tailerretan izena emateko epea irekita dago.

■ Zeintzuk dira antolatuko dituzuen lantegiak?

Orain arte antzerkia, larrua, egurra eta eskulana lantzeko tailerrak proposatu dira. Euskarazko bat ere proposatu da, pare bat irakasleren laguntzarekin hitz egiten erraztasuna hartzeko; gramatika-ekin ez dakit nola sartuko diren, baina duen helburua euskaraz moldatzeko gai izatea da. Hala ere, lantegi horietaz gain, inork besteren bat egitea nahi izango balu, proposatzea besterik ez dauka.

■ Zein helburu dituzte beste lantegiak?

Lehenik eta behin, zehaztu behar da aipatutako lantegiak proposamenak besterik ez direla, hau da, jendearen esku dagoela ekintzak aurrera ateratzea; tailer batean pertsona askok izena ematen badute, aurrera egingo du. Helburua Gasteizen aurkitu ezin diren tailerrak eskaintzea litzateke, nolabait esateko gauza alternatiboak.

■ Noiz hasiko dira tailerrak?

Lehenengoa otsailaren 1ean hasiko da, eta, berez, jendeak izena ematen hasi beharko luke ahalik eta lasterren tailerren bat egitea nahi izatekotan. Izena ematea Gasteizko Gaztetxean bertan egin daiteke.

■ Norentzat dira ikastaroak?

Nahi duen edozeinek parte har dezake ikastaro hauetan. Proposatutako gaien artean gustuko duen baten bat badago, izena ematea besterik ez du, eta, aurretik esan bezala, proposatuta ez dagoen ekintzaren bat egin nahi izatekotan, eska dezake.

Jon Rejado
GASTEIZ

...esaera

«Gauden erne eta izan gaitezen ernetsu»

...hizpideak

Behin-behinekotasuna Eusko Jaurlaritzan

■ Eusko Jaurlaritzak eta EAJ eta EA alderdiek EHrekiko legegintzaldi ituna bertan behera edo 'indarrrik gabe' uztea erabaki dute. Lehenagoko egoerara itzultzeko, ETAREN indarkeriarekiko 'arbuio jarrera argia' azaltzea jarri diote EHri baldintza, atentatuari buruz egindako adierazpenak ez baitzaizkie aski irudit. Baldintza hori jartzean, iaz sinatutako legegintzaldirako ituna ekarri dute gogora, baina esan beharra dago testu horrek ez duela jasotzen horrelakorik, alegia ez

ditu sinatzaileak behar izan gaitzespen adierazpenak egitera. 'Giza eskubideak urratzen dituzten ekintzak eta erantzunak behin betiko desagertarazteko konpromisoa' baino ez da jasotzen. EAJk eta EAK, ETAREN atentatuaren aurrean, EHTik aldentzeko hautua egin dute, baina beste multzoarekin lerratu gabe. Ondorioz, egoera orokorrean bezala, behin-behinekotasuna da nagusi Eusko Jaurlaritzan, gutxiengoan gobernatu beharko baitu.

BBVAren balantzea

■ BBVA-K 290.481 milioi pezeta irabazi zituen iazko ekitaldian, atzo banku horrek azaldutako datuen arabera. Mozkin horiek duela bi urte BBVn eta Argentariak lortutakoa baino %22,6 gehiago dira eta sektoreko lidergoari eusteko aukera eman diote entitate berriari.

BBVn, bestalde, Italiako Unicreditorekin negoziatzen segituko du. Bi entitateen arteko akordioa azkenek 'aliantza' edo 'bat-egitea' izango ote den ez zuten argitu bankuko buruek.

Austria pragmatikoa

■ Eskuina eta eskuin muturra gobernu osatzeko negoziazioetan hasi dira Austrian. Joerg Haider populistak prest dago kantzilergoak konterbadoreei uzteko, bere taldea Alderdi Liberala (FPOE) gobernuan izatearen truke.

Askoren iritziz, Haider gobernuan kontrolaturik sartzea pragmatikoena dateke: bozak berriz egitekotan, irabazteko aukera asko ditu politikari populistak.

Euskaltel-Euskadiren urte garrantzitsua

■ Zortzigarren denboraldiari ekingo dio Euskadik Euskaltelen babesarekin azkeneko urteetan, eta gaur bertan aurkeztuko da, Donostian, Kurtsaalean. Anbizio handia du denboraldi honetan Euskaltel-Euskadik, Tournean irteera baitu xede. Taldeak iaz oso maila txukuna eman zuen, eta egon zen aukerarik denboraldiko proba garrantzitsuenera joateko (Tourrera). Aurten ere zaila duen arren, eskura

garriagoa du helburu hori Euskaltel-Euskadik. Eta, bista handiz, inoiz baino gehiago korrituko du Frantzia. Han ere izen ona irabazi nahi du.

Taldeak asko egin du hobera Julian Gorospe zuzendari denetik, eta haren lana gehiago baliatzeke, garrantzitsua izango da aurten Tournean izatea, gerora horrek akaso diru gehiago ekarriko baitio taldeari. Eta orduan talde hobe osatu ahal izango du.

...pertsonaiak



JULIO CESAR LAMAS • Ostiralean Gasteizen jokatuko den Espainiako Saskibaloiko Kopari buruz aritu zaigu Tau Baskoniako entrenatzailea. Taldeak behar duen prestaketa psikologikoa azpimarratu du argentinarrak.



TEOLINDA GERSAO ¥ Emakume Idazleen XII. Topaketetara etorri da Portugalgo idazlea. Zazpi liburu ditu idatzitakoak, eta Portugalgo egile interesgarrienetako bat da.



DANIEL KALPARSORO ¥ Zinema zuzendari donostiarra prest du azken lana. 'Asfalto bere lanik normalean' dela dio. Otsailaren 4an estreinatuko da Espainiako areto komertziale-tan.

...datua

455. urtea ospatuko dute bertsozaleek datorren larunbatean Donostian egingo den Bertso Egunean.

...adierazpena

«Gazte erakunde bakarra sortzea da egungo egoerari gazteok egin diezaiokegun ekarpenik onena»

¥
Igor Ortega
Jarraiko eleduna

... seiko urrea

• XABIER OLEAGA •

Txikitasunaren kinka

Politikan txikitasunaren kinkan dabilenarentzat erabakiak ez dira errazak. Ez zen erraza IUrentzat erabakitzeko Lizarratik kanpo ala barruan geratu. Barruan gaizki, kanpoan ere ondo ez, agian txarrago.

Orain PSOEren eskaintzari ere erantzun behar. Ordezkaritza politikoa gehitu Senatuan, eta agian Gobernuaren ere ministroen bat sartu, 34 hautesgune-tan zerrendarik ez aurkeztearen truke, betiere IUK inoiz ordezkartzarik lortu ez duen guneetan. Xehetasun asko dago proposamen horren inguruan. Galera nabarmena dago proposamen horretan IUrentzat, baina baita ere mami

tentagarriarik. Horregatik da hain zaila.

Euskal Herriko ikuspegitik begiratuta, poztuko nintzateke kartetaren bat lortu eta Ministro Kontseilura eramango balu IUK gaur egun oraindik euskal gatazkarekiko irtenbide gisa defendatzen duena. Almunia konplize ona izango luke PSOE ausarta izaten hasteko. Azken batean



PSOEko gobernu batera ezker planteamenduak eramatea litzateke IUren zeregina testuinguru horretan. Europako Parlamentuan sozialista ezkertiarrak eta sozialista eskuindarrak bereizten dituzte. Espainiako Estatuan batzuen eta besteen arteko berezitasuna euskal gatazkarekiko irtenbideaz duten ikuspegiaren legoke

batik bat. Alegia, irtenbide demokratikoa, euskal herritarren hitzean oinarritzen dena, defendatzen dutenak, alde batetik, eta estatuaren inposizio historikoa, frankista lehen, gaur egun konstituzioan mamitzen dena, defendatzen dutenak bestetik. Ezkertiarrok geurek egiten ditugun kausak gizarte osoak barneratzen omen ditu gerora.

Laster konturatu naiz neure herrian bertan PSOEk agintzen duela udalean, IUrekin batera. PSOEren gobernatzeko era ez da batere aldatu horregatik; bai, ordea, eta txarrra, IUren jokamoldea udalean, euskara eta gizarte mugimenduei dagokienez.